

EUSKARAREN ETA ARABIERAREN EGUNAK, ABENDUAN

Urtero, abenduaren 3an, Euskararen Eguna ospatzen da. Abenduan bere eguna ospatzen duen beste hizkuntza bat arabiera da. Izan ere, hil horren 18a hautatu zuen UNESCOk Arabiar Hizkuntzaren Munduko Eguna ospatzeko. Data hori hautatu zen, hain justu, 1973an egun horretan arabiera Nazio Batuen Erakundeko seigarren hizkuntza izendatu zutela oroitzeko. Lehen ospakizun ofiziala 2012an izan zen.

Daten arteko gertutasuna partekatzeaz gain, bi hizkuntzek badituzte beste elementu batzuk amankomunean: euskarazko zenbait hitz arabieratik hartuak izan ziren. Batzuk zuzenean, hala nola "azoka" hitza, "as-sūq" hitzetik datorrena, edo "albaitari" hitza, bi hizkuntzetan esanahi bera duena. Beste hitz bat "gutun" da, arabierazko "kutub" (liburuak) hitzaren mailegu zuzentzat jotzen dena. Beste batzuk, berriz, Europako beste hizkuntza batzuetatik hartuak izan ziren, baina arabierazko hitzen batean dute jatorria: "azukrea" okzitanierako "sucre"-tik eta arabierako "sukkar"-etik dator, edota



"alkandora" gaztelaniako "alcándora"-tik eta arabiera hispanikoko "al-qandūra"-tik dator. Beste zenbait hitzek ez dute gauza bera esan nahi: "alkate" gaztelaniako "alcalde"-tik dator, baina arabierako "al-qādi"-tik (epailea).

Euskadin arabierak presentzia du herrialde arabiarretatik datozen pertsonen artean, bai eta ingurune formaletan ere. Hala nola Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), aukerako irakasgai gisa ematen da hainbat gradutan: Itzulpengintza eta Interpretazioan, Filologian, Ingeles Ikasketetan eta Euskal Ikasketetan.

EUSKARA-ARABE-AMAZIGH POLTSIKOKO HIZTEGIAREN AURKEZPENA

•Θ□|ΞΛ | :Γ•Π•Η •Θ•ΘℝΞ-•ΓQ•Θ-†•Γ•ℑΞΥ†

EAbenduaren 29an, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Euskara-Arabiera-Amazigera poltsikoko hiztegia aurkeztu zuen Laudion (Araba).

IKUSPEGIK, IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIAK, ZABALDU SAILEKO HIRUGARREN ALEA ARGITARATU DU: DISKRIMINAZIOAREN PERTZEPZIOA EUSKADIN ETA EUROPAN

Txosten horrek 2023ko Eurobarometroak (Europako 27 lurraldeak hartzen dituena) emandako datuen eta Euskadiko Diskriminazioaren inguruko Pertzepzioen eta Jarreraren Inkestaren (EPADE 2024) bidez bildutako Euskal Autonomia Erkidegoko datuen arteko azterketa konparatiboa aurkezten du.

Hainbat elementu neurtu ditu, hala nola goi-kargudun politikoetan gizarte-talde ezberdinetako pertsonekin duten erosotasun-maila, edo seme-alaba batek gizarte-talde ezberdinetako pertsona batekin duen harreman sentimentalaren erosotasun-maila. Halaber, ikastetxeetan aniztasunaren arloko edukiak sartzeari buruzko adostasun-maila.

Neurtzeko erabilitako gizarte-aniztasun markatzaileen artean, erlijioa eta erlijio jakin bateko kide izatea daude, islama kasu.

Informazio gehiago [hemen](#).

ZABALDU

Percepción de la discriminación en Euskadi y Europa

3



MAROKOKO PERTSONEN ELKARTE BAT SARITU DUTE MIGRATZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Joan den abenduaren 18an, Migratzaileen Nazioarteko Eguna zela eta, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak urteroko ekitaldia egin zuen Ermuan (Bizkaia), pertsona migratzaileen integrazioa bultzatzeko. Migratziorako Euskal Itun Sozialak sustatutako ekitaldi horretan, bizikidetzaren eta aniztasunaren alde lan egiten duten pertsonak eta kolektiboak egindako lana aitortzen da.

Aurten, saritutako erakundeetako bat Yallah Zurekin izan da, Marokoko pertsonen elkarteak. Elkarte horren helburu nagusia emakumeen aukera-berdintasuna bultzatzea da, batez ere magrebtar jatorrikoena.

Gainerako sariak honako hauentzat izan ziren: Ermuko Nazioarteko Elkartasun Kontseilua, Santiago Apostoluaren Eliza, ATCADE Ermuko Etxez Etxeko Zaintzako Langileen Elkarteak, 3Kultura Kulturarteko Bitartekaritza Elkarteak, PAACE Afrikan Nekazaritza eta Energia Sortzeko elkarteak eta ADEMA Afrikako Emakumearen Garapenerako Elkarteak.

Ekitaldia Ermua Antzokian egin zen eta herriko hainbat musulman bertaratu ziren.



MUBARAK RAMADANA



2026ko Ramadana dela eta, ADOS Aholku Batzordeak zorionak ematen dizkie musulman guztiei eta baraua bakean ospatzeko opa die. Urtero bezala, elkartasunak eta bizikidetzak markatutako une hau komunitate musulmanak gizartean duen inplikazioaren erakusgarri da.



BERRI LABURRAK

"ISILTASUNAREN ETA BELDURRAREN ARTEAN: ZERGATIK GERATZEN DA ISLAMOFOBIA SALAKETARIK GABE?" IKERKETA

Duela gutxi, komunitate musulmanarentzat interesgarria den ikerketa baten ondorioak argitaratu ziren. "Isiltasunaren eta beldurraren artean: Zergatik geratzen da islamofobia salaketarik gabe?" izenburua du, eta helburua da islamofobia-kasuetan gutxiespena eragiten duten arrazoiak identifikatzea eta aztertzea, islamofobia musulmanen aurka egindako edo halakotzat hartutako diskriminazio-modutzat hartuta.

Immigranteak Gizarteratzeko Marokoko Elkarrekin bultzatuta eta Malagako Unibertsitatearen aholkularitza zientifikoarekin, ikerketa estatu mailan egin zen eta Euskadiko profesional batek informatzaile gisa parte hartu zuen.

Diagnostikoaren dimentsioaz gain, jardunbide egokiak eta gomendioak txertatzen ditu, etorkizunean arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren eta horiekin lotuta dauden intolerantzia-moduen aurkako lege organiko bat egiteko ekarpenak egiteko.

Informazio gehiago [hemen](#).

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzordea da, euskal erakundeek eta Euskadiko komunitate islamikoek arteko lankidetzak sustatzeko. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Harrezkero, urtean hainbat aldiz bildu da. Batzorde honetan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoak osatzen dituzten pertsona guztiek hartzen dute parte. Bilera horietan bizikidetzak sustatzeko lan egiten da, eta Euskadiko komunitate islamikoek arazoei irtenbideak bilatzea da helburua.



945 017 940
adosbatzordea@euskadi.eus
Donostia-San Sebastian, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz

